

Bake bila gaur

Euskaldunon Egunkaria, 1997-05-18: 3.

Gure herria nekatua dago; borrokariena ere konturatzen da agonia honek mugak dituela. Irabazi, nork administra dezake iraunkorki porrotaren desesperoa? Gaur bertan gauden labanaren aho honen gaina jasanezina gertatzen ari bada, bahitua bahitu, torturatua gorpu, gertuko eta urruneko itxaropen guztiak lizun, zein proiektzio eman genezake baten edo besteen garaipen hipotetikoari?, zer dio gaur legeak gizakiari, zer zilegitasunaren kotizazioak kontzientziaren burtsan? Inkesta bat agertu berri da, Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritza Sailak egin. Oreatua dirudi. EAeko biztanleen % 66ri "ondo edo oso ondo" iruditzen zaio EAjk Espainiako Gobernuari eta ETari proposatutako negoziazio prozesua abian jartzeko. Proposamena hobeto hartzen du euskaldun sentitzen denak eta euskaraz hitzegiten duenak, eta eskasago PP, PSE-EE, UAtarrak. ETarekin orain bertan negoziatzeko prest daudenak, % 69 dira. Oinarrizko koadroa hau dela, ez dut uste bakearentzat inoiz hain itxaropentsu agertu zaigunik. Orain, non dira hau gauzatu dezaketen gure herriko gizonak?